



2010eko irailaren 24a

HERRIKO KONTSEILUko  
kide zareten jaun-andereak

Erref. : JMB/MHM - 1126/2010

**2010eko AGORRILAREN 26an, OSTEGUNA, 18 :00etan,**  
**HERRIKO ETXEAN BILDU DEN**  
**HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA**

**BERTARATUAK**: POULOU Auzapez jauna, LOLOM jauna, DUBARBIER anderea, BERLAN jauna, DOSPITAL-GHOSSOUB anderea, WATIER DE CAUPENNE anderea, MACHENAUD jauna, MINTEGUI anderea, IDIARTEGARAY-PUYOU anderea, URBISTONDOY jauna, IBARLOZA jauna, CAPDEVILLE anderea, GOUAILLARDET jauna, ANIDO jauna, HARDOY anderea, ERRANDONEA jauna, GOURAUD jauna, MINTEGUI jauna, DUGUET anderea, MADRID jauna.

**AHALORDEAK**: LALANNE jaunak BERLAN jaunari eman dio, HIRIART jaunak LOLOM jaunari, COSTE jaunak DOSPITAL andereari, UGARTEMENDIA andereak DUBARBIER andereari, TAPIA andereak DUGUET andereari.

**BARKATUAK**: ANCIZAR, GLOAGUEN, ORIVE, BAZERQUE andereak.

**GAI-ZERRENDA:**

**I/ Gai orokorrak**

- 1/ 2010eko ekainaren 2ko Herriko Kontseiluaren bildumaren onespena
- 2/ Herriko Kontseiluak Auzapezari eman ordezkaritza
- 3/ Familia eta Gizarte Laguntza Elkarteak : udalaren ordezkari baten izendatzea
- 4/ HEHS : Zerbitzu publikoaren prezio eta kalitateari buruzko txostena
- 5/ Donibane Lohizuneko Bigarren Mailako Kolegioen Herriarteko Sindikatua : Ekintza txostena
- 6/ Bidaiako jendearen harrerari buruzko departamenduko eskema berriaren proiektua
- 7/ Olaizola ondasuna : udalak egin erosketaren akta

**II/ Finantza gaiak**

- 1/ Mendebaldeko Pirinioetako Hiri Harresituen elkarteak
- 2/ Ez-balio gisa onartzea
- 3/ Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoarekiko hitzarmena udal langileen euskarazko lanbide formakuntzaren esparruan
- 4/ Askena proiektuari buruzko hitzarmena 10 alokatze etxebizitzaren eraikuntzarako
- 5/ Untxin hitzarmena 12 etxebizitza kolektiboren eraikuntzarako
- 6/ Ziburu /Hiri harresituei buruzko erakusketa
- 7/ Gazteria zerbitzua : kirol eta kultura jardueretarako izen-emateen tarifak

### **III/ Udal langilegoa**

- 1) Enpleguan Laguntzeko Kontratu baten sortzea
- 2) Ikaskuntza kontratua
- 3) Maila igoerak barne-sustapenaren esparruan
- 4) Lan denbora baten emendatzea
- 5) Biztanlegoaren zentsua
- 6/ Bilan soziala

### **IV/ Bestelako gaiak**

Pierre BERLAN jauna izendatua izan da bilkura idazkari gisa.

-----

### **I/ Gai orokorrak**

#### **1/ 2010eko ekainaren 2ko Herriko Kontseiluaren bildumaren onespena**

Herriko Kontseiluak 2010eko ekainaren 2ko Herriko Kontseiluaren bilduma aho batez onartu du.

#### **2/ Herriko Kontseiluak Auzapezari eman ordezkaritza (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua)**

Ordezkaritza horri esker, ondoko hitzarmenak izenpetu dira :

- Zokoa-Untxineko hondartzaren zati batean dagoen kokaleku baten okupazio hitzarmena, Jean Paul TOVAR jaunarekin izenpetua (2009ko uztailaren 27an BAIONAko Suprefeturak ikuskatua) ;
- Ziburutarren hondartzatik hurbil dagoen kokaleku baten okupazio hitzarmena, 2010eko martxoaren 29an Jean Michel MUGICA jaunarekin izenpetua ;
- Merkataritza alokairua, 2010eko apirilaren 8an BELHARRA GRAPHIC Erantzukizun Mugatuko Sozietatearekin izenpetua ;
- Prestazio hitzarmena, POMMEREAU mediku jaunarekin izenpetua (2010eko ekainaren 15ean BAIONAko Suprefeturak ikuskatua) ;
- Etxebizitza gisa erabiltzeko alokatze-kontratua, 2010eko ekainaren 24an Alain FLORES jaunarekin izenpetua ;
- « Organoaren Adiskideak » elkartearekiko partaidetzaren baldintzak zehazten dituen hitzarmena, 2010eko uztailaren 15ean izenpetua.

#### **Oharrak :**

DUGUET andereak POMMEREAU medikuarekiko hitzarmenari buruzko azalpenak lortu nahi ditu (hitzarmena ez da erantsia).

DUBARBIER andereak seinatu du POMMERAU jaunak hitzaldi bat emanen duela Ziburun antolatu gurasotasunaren astearren esparruan..

« Organoaren Adiskideak » elkartearikiko partaidetzari buruz, DUGUET andereak honako hau galdegin dio Auzapez jaunari :

Segurantzak ote dituzu hitzarmenean aipatu diru-sarrera desberdinei buruz (Kontseilu Orokorra, Barne Ministerioa, Parlamentuko Erreserba).

Partaideek engaiamendua errefusatu edo huts eginez gero, zer aurreikusi duzu ?

Auzapez jaunak baiezko erantzuna eman dio eta udalaren diru engaiamenduak ez direla aldatu baieztatu du : gehienez 100 000 eurokoak izanen dira.

### **3/ Familia eta Gizarte Laguntza Elkartea : Udalaren ordezkari baten izendatzea**

**Txostengile : Marie José WATIER de CAUPENNE anderea**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariari 2010eko ekainaren 15ean gutun bat hartu duela Familia eta Gizarte Laguntza elkarteko lehendakariarengandik. Gutun horretan, lehendakariak galdegiten dio Ziburuko Udalari ordezkari bat izendatzea, elkarteko Zuzendaritza Batzordean parte hartzeko.

Auzapez jaunak proposatu die Herriko Kontseilariari WATIER de CAUPENNE anderea, Gai Sozialetaz arduratzen den auzapezordea izendatzea.

Azalpen horren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- WATIER de CAUPENNE anderea **IZENDATU du** Ziburuko Udala ordezkatzeko Familia eta Gizarte Laguntza Elkarteko Zuzendaritza Batzordean.

## **AHO BATEZ ONETSIA**

### **4/ HEHS : Zerbitzu publikoaren prezio eta kalitateari buruzko txostena**

**Txostengile : Auzapez jauna**

Auzapez jaunak seinatu die Herriko Kontseilariari Hondakinak Ezabatzeko Herriarteko Sindikatuak 1995eko otsailaren 2ko 95-101 legearen arabera prestatu txostena helarazi diola, publikoaren esku jartzeko gisan.

Azalpen horren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- HEHSk helarazi zerbitzu publikoaren prezio eta kalitateari buruzko txostena **AKTAN JARRI du**

### **5/ Donibane Lohizuneko Bigarren Mailako Kolegioen Herriarteko Sindikatua : Ekintza txostena**

**Txostengile : Isabelle DUBARBIER anderea**

Auzapez jaunak seinatu die Herriko Kontseilariet Donibane Lohizuneko Bigarren Mailako Kolegioen Herriarteko Sindikatuak 1995eko otsailaren 2ko 95-101 legearen arabera prestatu 2008 eta 2009 urteetako txostenak helarazi dizkiotela, publikoaren esku jartzeko gisan.

Azalpen horren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- Ekintza txosten horiek **AKTAN JARRI ditu.**

*URBISTONDOY jauna heldu da.*

**6/ Bidaiako jendearen harrerari buruzko departamenduko eskema berriaren proiektua**

**Txostengile : Pierre BERLAN jauna**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariet Pirinio Atlantikoetako Prefeta jaunak 2010eko ekainaren 21ean honako dokumentu hau helarazi diola : bidaiako jendearen harrerari buruzko departamenduko eskema berriaren proiektua.

Dokumentu hori finkatu zen 2010eko ekainaren 11an, Baionako Suprefeturan iragan zen azken bilkuran.

Auzapez jaunak azpimarratu du bilkura horretan, honako hau jarri dela aktan : « *Ziburuko herrian, Urdazuriko lur urperagarrietatik kanpo, aterabide gutxi planteatzen ahal ziren* ». Ziburuko Udalaren ordezkariak seinatu du « *aterabide egokienak, Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren lurraldean kokatu 200 lekuko herriarteko harrera eremu bat izan litekeela* ».

Departamenduko Lurralde eta Itsas Zuzendaritzak adierazi du Ziburuko Udalaren ordezkariak proposatu herriarteko aterabide hori, aurreko prefeta batek ere planteatu zuena, gogoetatzekoa zela eta ezin zutela berehala sartu eskemaren idazketan. Baina proposamena gauzatuko balitz, eskema geroago berrikusiko lukete.

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariet herriarteko aterabide hori ezin dela berehala planteatu zeren eta arlo horretako azterketen eskumena daukana Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoa baita. Aterabide horrek ezin hobeki erantzun liezaieke bidaiako jendearen beharrei. Gainera, eskumen hori Herri Elkargoen eskura pasaraz daitekeela aurreikusten duten legezko preskripzioekin bat eginen luke.

Bestalde, Auzapez jaunak adierazi du herriarteko aterabide hori baztertuko balitz, premiazkoa izanen litzatekeela hasierako dokumentuetan aurreikusia zen aterabidea departamenduko eskeman berriz txertatzea, hau da, 50 lekuko iragaite handiko eremu baten instalazioa 5.000 biztanle baino gehiagoko herri guzietan.

Azalpen horren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- Irizpen bat **EMAN du** bidaiako jendearentzako departamenduko proiektu berriari buruz,
- Bidaiako jendearentzako departamenduko eskema horrek Auzapez jaunak adierazi dituen oharrak aintzat hartuko dituela **ESPERO du**, puntu nagusiak honako hauek izanik : txosten horretan Herri Elkargoaren esku hartzea ; eta txosten hori herriarteko

mailan kudeatua izanen ez balitz, 200 lekuko eremu bakar baten sortzearekin, 5.000 biztanle baino gehiagoko herrietan iragaite handiko eremu baten proposamena berriz txertatzea.

Oharrak :

MINTEGUI jaunak galdegin du legeak behartzen dituen 50 lekuak Tokiko Hirigintza Planean oraindik ote dauden, eremu urpegarrietatik kanpo.

Auzapez jaunak baiezko erantzuna eman dio.

MINTEGUI jaunak jakinarazi du xuri bozkatuko duela, asunto horretan ez baita ez xehetasunik, ez eta planorik ere.

DUGUET andereak :

*Auzapez jauna, galdegiten diguzu irizpen bat ematea bidaiako jendearentzako harrera eremu baten kokatzeari buruz. Hona gure irizpena :*

*EHHHEren eskumen mailan, honako hau besterik ez da : « Herriarteko plan baten martxan jartzea bidaiako jendearentzako eremuak kokatzeko ». Obragintzari buruz, deusik ez.*

*2008ko urrian Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak proposatu zuen THPn, gure herrian 50 lekuko eremu bat aurreikusten zuen plan hori jadanik finkatua zen.*

*2010eko ekainaren 11ko bilkuran, DLIZk erran du « martxan ezarri beharreko aterabideak THPen bidez oposagarri bihurtuko direla ». Beste herriek honelako jarrerak hartu dituzte : Senpereko udalak 50 leku aurreikusten ditu ; Hendaiakoak jakinarazi du bere Tokiko Hirigintza Planean aurreikusi duela ; Donibane Lohizuneko hiriak 50 lekuko eremu bat dauka.*

*Komentzituak gara zailagoa dela 200 lekuko eremu bat kudeatzea, 50 lekuko hainbat eremu baino. EHHHEk proposatzen badizu Ziburun kokatzea, zer egingen duzu, Auzapez jauna ?*

*Oroitarazten dizugu Ziburuko herria 2003ko departamenduko eskeman zerrendatua dela. THPk ere Ziburu izendatzen du aldi baterako harrera lur gisa. Ez dut ikusten nola ihes egingen geniokeen betekizun horri.*

*Legearetikiko egokitasuna saihestezina da. Konponbide bat baitezpada aurkitu behar dugu eta kokaleku duin bat aurkitzeari seriooki ekin behar diogu. Hona hemen THPren ondorioa : « populazio batzuen baztertzeari uko egin » behar zaio.*

*Auzapez jauna, errugbizalea zara... Baloia eskuinera pasatuz, ez pentsa zuregana itzuliko ez denik...*

## ONETSIA

MINTEGUI jaunak xuri bozkatu du. DUGUET andereak, TAPIA andereak eta GOURAUD jaunak ez dute botoan parte hartu.

### **7/ Olaizola ondasuna : Udalak egin erosketaren akta**

#### **Txostengile : Auzapez jauna**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariari Ziburuko Udalak egin erosketa aktaren proiektu bat hartu duela. Udalak erosi nahi duen ondasuna OLAIZOLA familiarena da,

Aristide Bourousse karrika, 18an kokatua eta kadastreko AL atalean 387 zenbakipean zerrendatua dena.

Ondasun horren eskuratzeak honako ekintza hauek ahalbidetuko ditu: auzoaren berrantolaketa, Zubiburu udal etxe multzo berrirako sarbidea erraztea eta François Mitterrand etorbidearekiko bidegurutzea segurtatzea.

Ziburuko Udalak proposatu erosketa prezioa 300 000 eurokoa da, Ondasun Publikoetako zerbitzuen irizpenean oinarriturik. Alabainan, 2009ko uztailaren 17an egin zuten estimazioaren arabera, prezioa 296 000 eurokoa zen. Irizpen berri bat galdegin diogu « France Domaine » administrazioari.

Azalpen horren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- **ERABAKI du** ondasun hori erostea 300 000 euroko prezioan,
- Auzapez jauna **AHALDUNDU du** erosketa akta eta honi dagozkion dokumentu guztiak izenpetzeko,
- PAOLI notarioaren notariotza **IZENDATU du** erosketa akta idazteko.

Oharrak :

DUGUET andereak jakin nahi du, geroari begira, zertarako balioko duen lursail horrek. Auzapez jaunak erantzun dio erabilera publiko baterako gehienbat balioko duela : eremu eta aparkalekuak sortzeko, Kontseilu Orokorrekin eztabaidan dagoen bidegurutze baten antolaketa.

MINTEGUI jaunak jakin nahi du zer bilakatuko den bertan kokatua den enpresa eta merkataritza fondoaren estimazioa.

Auzapez jaunak erantzun dio solasaldiak hasiak direla alokairua ordaintzen duenarekin eta aldeko aterabide bat laster aurkituko dela, bai harekin, bai ondoko etxearen jabearekin ere. Baina solasaldiak amaituak ez direnez, Auzapez jaunak ez du kanporatze ordainsariaren zenbatekoa iragarri nahi.

Auzapez jaunak azpimarratu du enpresak Ziburun egon nahi duela. Beraz, baliteke egoitza Kirol Zelaiera, herriko tailerren ondora, lekuz aldatzea. Aztertzen ari den aterabidea da.

## **AHO BATEZ ONETSIA**

### **II/ Finantza gaiak**

#### **1) Mendebaldeko Pirinioetako Hiri Harresituen elkarte**

**Txostengile : Claude LOLOM jauna**

« Mendebaldeko Pirinioetako Hiri Harresituen » elkarteak erabaki du, aho batez, 2010eko aurrekontua onartzea eta kideen laguntza eskatzea aurrekontu horretan ageri den finantzaketa gehigarriren beharrari aurre egiteko.

Elkargoen gain dagoen finantzaketa gehigarriren beharra 2 173,00 €-koa da, Ziburuko Udalari eskatu parte hartzea 497,96 €-koa delarik.

Herriko Kontseilarietara galdegin zaie Auzapez jaunari baimena ematea eskatutako parte hartzea (497,96 €) ordaintzeko, kontuan harturik horretarako beharrezkoak diren kredituak 2010eko hasierako aurrekontuan (6 281 postuan) sartuak direlarik.

2010eko agorrilaren 17an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak erabaki du :

- Mendebaldeko Pirinioetako Hiri Harresituen elkarteak eskatu parte hartzea **EMATEA**.

## AHO BATEZ ONETSIA

### 2) Ez-balio gisa onartzea

Txostengile : Claude LOLOM jauna

Auzapez jaunak azaldu die Herriko Kontseilarietara Altxor Publikoko kontuzainak ezin izan duela behe honetako diru-sarreraren tituluak kobratu. Ondorioz, galdegin du ez-balio gisa onartzea, horien zenbateko osoa 1 371,16 €-koa izank.

Ekitaldiaren urtea	Tituluaren erreferentzia	Zordunaren izena	Kobratzeko gelditzen den zenbatekoa	Aurkezpenaren arrazoia
2006	R -100-55	MOREL	64,32	Ordaintzeko ezintasunaren ziurtagiria zordunarentzat
2006	R-100-70	OCEAN CONCEPT	52,14	Amaiera aktibo eskasia ZJLJ
2008	R-41042010	OCEAN CONCEPT	54 ,24	Amaiera aktibo eskasia ZJLJ
2008	R-41042010	MOREL	66,92	Ordaintzeko ezintasunaren ziurtagiria zordunarentzat
2008	R-41042010	JEU DE PAUME JATETXEA	167,77	Amaiera aktibo eskasia ZJLJ
2007	R-41042010	OCEAN CONCEPT	53,18	Amaiera aktibo eskasia ZJLJ
2007	R-81-120	MARIN JIMENEZ SOPHIE	17,93	Kobratzeko gelditzen diren hondarrak : jaukipen mugatik beherakoak
2007	R-41042010	MOREL	65,61	Ordaintzeko ezintasunaren ziurtagiria zordunarentzat
2007	R-41042010	JEU DE PAUME JATETXEA	164,48	Amaiera aktibo eskasia ZJLJ
2005	T-292	DELHAYE Catherine	153,13	Emaitzarik gabeko jaukipenak
2008	T-402	SCHAMP PHILIPPE & FLO	251,66	Ez da emandako helbidean bizi - xehetasun eskabidea : ezezkoa
2010	T-42	TOYOS C. – DELHAYE P.N.	73,00	Emaitzarik gabeko jaukipenak
2005	T -541	OCEAN CONCEPT	58,62	Amaiera aktibo eskasia ZJLJ
2005	T- 541	MOREL	70,56	Ordaintzeko ezintasunaren ziurtagiria zordunarentzat
2004	T- 592	OCEAN CONCEPT	57,60	Amaiera aktibo eskasia ZJLJ
		<b>OROTARA</b>	<b>1 371,16</b>	

Orduan, Auzapez jaunak proposatu dio biltzarrari titulu horiek ez-balio gisa onartzea.

2010eko agorrilaren 17an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak erabaki du :

- Gain honetan aurkeztu tituluak ez-balio gisa **ONARTZEA**.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

#### **3) Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoarekiko hitzarmena udal langileen euskarazko lanbide formakuntzaren esparruan**

**Txostengile : Iñaki IBARLOZA jauna**

Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak eskabide orriren bidezko merkatu bat pasatu du AEK elkartearekin – Marengo karrika, 22 - Baiona – Herri Elkargoko herrietako udal langileen formakuntzari buruz.

Titularrak jakinarazpena hartu egunetik hasi eta urte bateko iraupena du merkatu horrek.

Formakuntza lan denboran iragaten da. Langile bakoitzak gutxi gorabehera 105 klase ordu ditu, hau da, astean hiru ordu, bai eta 4 eguneko bi ikastaro trinko ere.

Formakuntzaren finantzaketa plana ondokoa izan liteke :

2010eko apirilaren 29ko erkidegoko bulegoak erabakirik, Herri Elkargoak langileen formakuntzaren heren bat hartzen du bere gain.

2010eko otsailaren 22ko Administrazio Kontseiluak erabakirik, Euskararen Erakunde Publikoak langileen formakuntzaren heren bat hartzen du bere gain.

Herriko Kontseilariei proposatu zaie Herriko Kontseiluak langileen formakuntzaren heren bat bere gain har dezan.

Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak, merkatuaren titular gisa, faktura desberdinak osoki eta zuzenki ordaintzen dizkio AEKri.

Gero, EHHHEK Ziburuko Udalari eskatuko dio Ziburuko langileen formakuntzaren kostuaren herena itzul diezaion.

2010eko agorrilaren 17an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- **ONARTU du** langileen formakuntzaren herena bere gain hartzea.
- Auzapez jaunari **BAIMENA EMAN dio** Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoarekiko hitzarmena izenpetzeko.

Oharrak :

MADRID jaunak seinalatu du abstenituko dela gai horri buruz. Oposizioan izanik, ez du Herri Elkargoaren ekintzen berri. Hala ere, udal langilegoaren formakuntzaren alde da.

MINTEGUI jaunak galdegin du zenbat langile hunkituak diren Ziburun eta zein diren hautatzeko irizpideak.

IBARLOZA jaunak azpimarratu du bolondresak direla eta publikoaren harrera (herriko etxean, aisialdi zentroan eta haurtzaindegian) segurtatzen duten zerbitzuetako langileen



hautagaitzak atxiki dituela udalak. Formakuntza horretan parte hartzen duten hiru langilerekin, Ziburu da ikasle gehien duen herria.

Bestalde, jakinarazi du gure langileak oso ongi notatuak direla eta bizkorki parte hartzen dutela formakuntza horretan.

MADRID jauna abstenitu da.

## ONETSIA

### 4) Askena proiektuari buruzko hitzarmena

Txostengile : Claude LOLOM jauna

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariei Habitat 64 Bulegoak partaidetza hitzarmenaren proiektua helarazi diola 10 alokatze etxebizitza sozial eraikitzeko ASKENA ondasuna dagoen tokian. Oroitarazi du ondasun hori Ziburuko Udalak saldu diola erakunde sozial horri.

Proiektu sozial horrek 10 etxebizitzaren eraikuntza aurreikusten du, honela banaturik :

- T1 bat
- Lau T2,
- Lau T3,
- T4 bat.

Ziburuko Udalaren diru parte hartzea 33 314,09 eurokoa izan liteke, eragiketaren kostaprezioaren % 3 gisa (Erabilera Sozialerako Alokatzeko Mailegua eta Txertatze Alokatzeko Mailegu Lagundua). Horretatik kendu beharko da Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren diru parte hartzea, zenbateko horren % 20koa izanen dena.

Azalpen horren eta 2010eko agorrilaren 17an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- partaidetza hitzarmena, aurkeztua den bezala, bai eta finantzaketa aurre-plana ere **ONETSI ditu,**
- Auzapez jauna **AHALDUNDU du** hitzarmena, aurkeztua den bezala, izenpetzeko.

Oharrak :

LOLOM jaunak azpimarratu du Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak zenbateko horren % 20 ordainduko duela. Gauza bera izanen da hurrengo deliberoan aipatu Untxin programarako.

DUGUET andereak :

Damutu gara txosten hori hirigintza batzordearen aurrean pasatu ez izateaz. Bestalde, urtarrilaren 5eko batzorde horren bildumaren beha gaude oraindik !!

Gure programa, adineko pertsonen zuzendu etxebizitza sozialak aurreikustea zen. Lekua ezin hobea da halako proiektu batentzat, hain zuzen ere jadanik proposatu genuen aurreko herriko kontseilu batean... eta justifikatuko zuen aparkatzeko lekuen kopuru mugatua (5) 10 etxebizitzetarako.

Auzapez jaunak erantzun du, gazteei dagokienez, Herri Elkargoak aztertzen dituela gazteei zuzendu programa bat obratzeko aukerak. Txostena eta kontsulta abian jarri ditu.

Auzapez jaunak azpimarratu du udalek esku har dezaketela etxebizitza sozial horietarako hautagaien hautuan, % 20 mailan.

MADRID jaunak erran du halako eragiketa sozialen alde dagoela.

## **AHO BATEZ ONETSIA**

### **5) Untxin hitzarmena 12 etxebizitza kolektiboren eraikuntzarako**

**Txostengile : Claude LOLOM jauna**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariari Habitat 64 Bulegoak partaidetza hitzarmenaren proiektua helarazi diola 12 alokatze etxebizitza sozial eraikitzeke Florentino Goikoetxea hostailbidean kokatu lursail batean (2.100 m<sup>2</sup> inguruko azalera duena), kadastrako AD atalean, 89p zenbakipean zerrendatua den lurzatian.

Proiektu sozial horrek 12 etxebizitzaren eraikuntza aurreikusten du, honela banaturik :

- Lau T2,
- Lau T3,
- Lau T4.

Ziburuko Udalaren diru parte hartzea 48 969,12 eurokoa izan liteke, eragiketaren kostaprezioaren % 3 gisa (Erabilera Sozialerako Alokatzeko Mailegua eta Txertatze Alokatzeko Mailegu Lagundua). Horretatik kendu beharko da Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren parte hartzea, zenbateko horren % 20koa izanen dena.

**Azalpen horren eta 2010eko agorrilaren 17an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak :**

- partaidetza hitzarmena, aurkeztua den bezala, bai eta aurreko finantzaketa plana ere **ONETSI** ditu,
- Auzapez jauna **AHALDUNDU** du hitzarmena, aurkeztua den bezala, izenpetzeko.

## **AHO BATEZ ONETSIA**

**Oharrak :**

DUGUET andereak aurreko galderari buruzko ohar berak adierazi ditu.

Bi delibero horiei dagokienez, Auzapez jauna, gure sustengua emanen diegu zure erabakiei hitz ematen baduzu gure oharrak aintzat hartuko dituzula.

### **6) Ziburu / Hiri Harresiei buruzko erakusketa**

**Txostengile : Claude LOLOM jauna**

Datorren irailean, Kontseilu Orokorreko Kultura Zerbitzuak, Batzorde iraunkorraren kariatara, « Hiri harresietan bizi » izenburu duen txostena aurkeztuko du. Tokiko elkargo eta Euskal Museoarekiko lankidetzan, erakusketa hori 2010eko azken hiruhilean plazaratuko da, ondare eraikia baloratzeko gisan.

Zokoako gotorlekuaren balorazioa maketa baten bidez egingen da, besteak beste, honen kostua 15 200 €-koa izanen baita. Udalak 3 500 € emanen du eta Kontseilu Orokorren laguntza bat eskatuko du maketa horren sortzerako.

**Azalpen horren eta 2010eko agorrilaren 17an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak :**

- **ONETSI du** udalaren parte hartzea, 3 500 €-koa izanen dena,
- Auzapez jaunari **BAIMENA EMAN dio** Kontseilu Orokorri ahalik eta laguntza altuena eskatzeko gauzatze asmoz.

MADRID jaunak jakinarazi du abstenituko dela gai horri buruz. Zokoako gotorlekuaren maketa baino, Udalak gotorlekua bera eros dezan nahiago izanen zuen.

DUGUET andereak :

Erakusketa nork antolatzen du ? Kontseilu Orokorrak, hiriek, euskal museoak ?

Eta Kontseilu Orokorrak diru-laguntzarik emanen ez balu ?

Lehiaketarako deialdirik izan ote da maketaren gauzatzerako ?

Ziburuko elkarteek (batek bederen) maketagintza tailerrak badituztenez, ez ote zen egokiago izanen horiekiko lankidetzak planteatzea ?

Auzapez jaunak erantzun dio Kontseilu Orokorra arduratzen dela eragiketa horretaz. Hain segur ere, maketa gauzatze kontsulta bat antolatua du.

MADRID jauna abstenitu da.

**ONETSIA**

**7) Gazteria zerbitzua : kirol eta kultura jardueratarako izen emateen tarifak**

**Txostengile : Isabelle DUBARBIER anderea**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilari, gurasoen eta gazteria zerbitzuko arduradunen arteko solasaldiek honako eskaera hau agerian utzi dutela : gurasoak eta gazteak elkar litzaketan kirol edo kultura jarduerak abian jartzea. Esperimentu gisa, irailtik goiti ateraldiak antolatuko dira, gain honetako eskaerari erantzunen diotenak eta, komeni da kirol eta kultura jarduera horietarako izen emateen tarifak finkatzea. Auzapez jaunak proposatu du ondoko tarifak onartzea:

- 10 € laguneko : Ziburun helbideratuak diren eta zergapegarri ez diren familientzat
- 15 € laguneko : Ziburun helbideratuak diren beste familientzat

- 20 € laguneko : Ziburutik kanpo helbideratuak diren familia guzientzat.

Azalpen horren eta 2010eko agorrilaren 17an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- gain honetan aurkeztu tarifak **ONETSI ditu.**

Oharrak :

MADRID jaunak azpimarratu du kanpoko pertsonentzako 20 euroko prezioa ez dela justifikatzen : hobe genuke tarifak bateratzea Herri Elkargoko biztanle guzientzat.

DUBARBIER andereak seinatu du tarifa horiek auzoko herri batzuetan ere aplikatuak direla. Esperimentu bat da eta honen emaitzak urte amaieran neurtzen ahalko ditugu. Tarifa horiek ateraldiei lotu gastu guziak, hau da, garraioa, langilego gastuak, bisitatuko diren gunetara sartzeko prezioak kontuan hartzen dituzte.

MADRID jaunak aurka bozkatu du.

## ONETSIA

### III/ Udal langilegoa

#### 1) E.L.K. baten sortzea

Txostengile : Claude LOLOM jauna

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariari 2008az geroztik gure elkargoak harrera egiten diola Ramiro Arrue lizeoko ikasle bati. Helburua aurre-formakuntza bat lan munduan egitea izanik, Gurutze Gorriko eskolako egoitzako jatetxe eta mantentze zerbitzuan ari da lanean, astean behin.

Azken bi urte hauetan, ikasleak bere gaitasun desberdinak erakusteko aukera izan du, bai jarrera mailan, bai intelektual zein lanbide mailan.

Ondorioz, enplegu lagunduen baliabidearen esparruan, proposatu da pertsona hori enplegatzea txertatze kontratu bakar/enpleguan laguntzeko kontratu baten bidez, lanaldi partzialekoa, batezbesteko oinarria 20 ordu asteko izanik. Kontratuak sei hilabeterako balioko du eta berriaztagarria izanen da.

Azalpen horren eta 2010eko agorrilaren 17an bildu zen Finantza eta Udal Langilego Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- Auzapez jaunari **BAIMENA EMAN dio** POLE EMPLOI erakundearekiko hitzarmena izenpetzeko aipatu pertsona enplegatu ahal izateko, 2010eko irailaren 1etik goiti, lanaldi partzialeko kontratu baten bidez, batezbesteko oinarria 20 ordu asteko izanik, 6 hilabeterako, berritzeko aukerarekin.

**AHO BATEZ**

## 2) Ikaskuntza kontratua

Txostengile : Claude LOLOM jauna

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariari hainbat aprendizari harrera egiteko aukera badela. Kontratu horiek, funtzio publikoan enplegatzeak ez direnak, hurrengo eskola sartzean hasiko dira, berdeguneen zerbitzuaren baitan. Helburua, batentzat « paisaia lanak » titulua (CAP) eta, bestearentzat, « paisaia antolamenduak » titulua (BP) prestatzea izanen da.

2010eko agorrilaren 17an bildu zen Finantza eta Udal Langilego Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- **ERABAKI du** bi aprendiz horiei harrera egitea,

**AHO BATEZ ONETSIA**

## 3) Maila igoerak barne-sustapenaren esparruan

Txostengile : Claude LOLOM jauna

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariari Pirinio Atlantikoetako Lurralde Funtzio Publikoaren Departamenduko Kudeaketa Zentroaren baitan eskudunak diren Batzorde Administratibo Paritarioek aldeko irizpena eman dutela goi mailako enpleguetan egin diren izendatzei buruz.

Ondorioz, Auzapez jaunak proposatu du ondoko lanpostuak eraldatzea, dagozkien langileak izendatu ahal izateko :

- 1. klaseko laguntzaile administratiboa (C kategoriakoa) erredaktore (B kategoriakoa) bihurtuko da
- gainbegirale nagusia (C kategoriakoa) obra kontrolatzaile (B kategoriakoa) bihurtuko da

2010eko agorrilaren 17an bildu ziren Batzorde Tekniko Paritarioaren eta Finantza eta Udal Langilego Batzordearen irizpenen jarraian, Herriko Kontseiluak :

- **ERABAKI du** 1. klaseko laguntzaile administratiboaren lanpostua erredaktore baten lanpostu bihurtzea eta gainbegirale nagusiaren lanpostua obra kontrolatzaile baten lanpostu bihurtzea,
- Lanpostuen zerrenda horren arabera **ALDATU du**.

Oharrak :

DUGUET andereak Batzorde Tekniko Paritarioen bildumen kopia eskuratu nahi luke. Dokumentu horiek helaraziko zaizkie, bai DUGUET andereari, bai eta MADRID jaunari ere.

**AHO BATEZ ONETSIA**

#### **4) Lan denbora baten emendatzea**

**Txostengile : Claude LOLOM jauna**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariei beharrezkoa dela 2. klaseko laguntzaile tekniko baten asteroko lan denboraren batezbesteko iraupena emendatzea. Alabainan, langile horri xede gehiago eman zaizkio, Gurutze Gorriko eskolako jatetxe eta mantentze zerbitzuan parte hartzeko xedea bereziki.

**2010eko agorrilaren 17an bildu ziren Batzorde Tekniko Paritarioaren eta Finantza eta Udal Langilego Batzordearen irizpenen jarraian, Herriko Kontseiluak :**

- **ERABAKI du** lanaldi partzialeko 2. klaseko laguntzaile teknikoaren lanpostua (asteko lan denbora : 28 ordu, batez beste) lanaldi partzialeko 2. klaseko laguntzaile teknikoaren lanpostu bihurtzea (asteko lan denbora : 31 ordu, batez beste),
- Lanpostuen zerrenda horren arabera **ALDATU du**.

**AHO BATEZ ONETSIA**

#### **5) Biztanlegoaren zentsua**

**Txostengile : Claude LOLOM jauna**

Auzapez jaunak oroitarazi die Herriko Kontseilariei hurbileko demokraziari buruzko 2002ko otsailaren 27ko 2002-276 legeak, honen V. kapituluak bereziki, biztanlegoaren zentsu eragiketak udalen esku uzten dituela.

Xede horren segurtatzeko, Auzapez jaunak proposatu du aldi baterako zentsulari lanpostuak sortzea, denbora osoz, lurralde funtzio publikoari buruzko 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 lege aldatuaren xedapenen arabera (3. artikulua, 2. pasartea).

Asteroko lan denboraren iraupena 35 ordukoa izanen da. Lanpostu horien ordainketa funtzio publikoaren 297 indize gordinaren balioaren arabera egingen da. .

**2010eko agorrilaren 17an bildu zen Finantza eta Udal Langilego Batzordearen irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak :**

- **ERABAKI du** aldi baterako 12 zentsulari lanpostu sortzea, denbora osoz.

**AHO BATEZ ONETSIA**

#### **6/ Bilan Soziala**

**Txostengile : Claude LOLOM jauna**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseilariei, 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 lege aldatuaren 33 artikulua xedapenen arabera, lurralde elkargoei eta zerbitzuei dauzkaten aurrekontu eta giza baliabideen bilan soziala urtero aurkeztu behar dutela.

2010eko agorrilaren 17ko Batzorde Tekniko Paritarioaren irizpenaren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- 2009ko bilan soziala, aurkeztua den bezala, **AKTAN JARRI du.**

## **AHO BATEZ ONETSIA**

### **IV Bestelako gaiak**

DUGUET andereak bi galdera hauek irakurri ditu :

- Marinela eskola : Adituen txostenei buruzko puntua eta segida

Auzapez jaunak seinalatu du adituaren txostenaren eskuratzea irailaren amaierara atzeratua izan dela, aurkako alderdiak bi enpresa gehiago auzira eraman dituelako.

- ZIBURUko plaza eta bideen estreinatzeak :

DUGUET andereak galdegin du noiz iraganen den Gustave eta Charles Colin pasabidearen estreinatzea.

André Hiriart hostailbideari dagokionez (2008ko abenduan bozkatu deliberoa), agorrilaren 9rako gonbidapena ez dut eskuratu. Jakinarazi nahi diet Herriko Kontseilariari, Hiriart jaunari bereziki, Ziburutarren omenez egiten ditugun Ziburuko karrika eta bideen estreinatze horien artean bereizterik ez dudala egiten.

Bilkura 19 :30ean amaitu da.